



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko abuztuaren 17an

64 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko 1999ko Kontu Orokorrei buruzko aholkularitza txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Hidrokarburoen, tabakogaien, elektrizitatearen eta aseguru primen gaineko zerga bereziei buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina (6. or.).

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

**Nafarroako Parlamentuko 1999ko Kontu Orokorrei buruzko aholkulari-
tza txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 12an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak Nafarroako Parlamentuko 1999ko Kontu Orokorrei buruz egindako aholkularitza txostena argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Nafarroako Parlamentuko 1999ko
Kontu Orokorrei buruzko aholkulari-
tza txostena, Kontuen Ganbarak
egina**

AURKIBIDEA

- I. Helburua eta norainokoa (2. or.).
 - II. Iritzia (2. or.).
 - III. Finantzen egoera orriak 1999-12-31n (3. or.).
1. taula. 1999ko aurrekontuaren exekuzioa
 2. taula. Ekonomia- eta ondare-emaizta 1999an
 3. taula. 1999ko emaitzen aplikazioa
 4. taula. Egoeraren balantzea 1999-12-31n

I. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2000ko urtarrilaren 28an hartutako erabakia betez eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean xedatuarekin bat, Nafarroa-

ko Parlamentuaren 1999ko kontu orokorrei buruzko txostena –aholku ematekoa– egin dugu.

Egindako eskariari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuaren 1999ko kontu orokorrak arrazoizkoak ote diren aztertu dugu. Kontu orokorrak prestatzeko ardura Parlamentuarena izan da. Finantzen egoera orrien laburpena, berriz, txosten honen III. atalean jaso dugu.

Gure azterketa egitean, inguruabarrak kontuan harturik beharrezkoak iruditu zaizkigun auditedura-tza-prozedurak eta -arauak aplikatu ditugu.

II. IRITZIA

Gure iritiz, kontu orokorrak behar bezala adierazten du 1999ko aurrekontuaren exekuzioa, Nafarroako Parlamentuaren 1999ko abenduaren 31ko ekonomia- eta ondare-egoera eta egun hartan bukatzen zen urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzak ere, aplikagarriak diren kontabilitate printzipio eta irizpideekin bat etorritik.

Parlamentuak 1999an zehar izan duen ekonomia- eta finantza-jarduera, berriz, legezotasun-printzipioaren arabera izan da.

Txostena egiteko ardura Ignacio Cabeza del Salvador jaunarena izan da, eta hark proposatuta egin dut, indarrean dagoen legedian ezarritako tramite guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

III. FINANTZA-EGOERA 1999-12-31n**1. TAULA. 1999ko AURREKONTUA BURUTZEA.**

Nafarroako Parlamentuko 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa
gastuen kapitulu ekonomikoka (pezetatan)

Kapituluak	Bateratua	Baimendutako kreditua, guztira	Erabilia	Onetsitako betebeharrak	Gauzatua	Erresultak	Deuseztua
1. Langile gastuak	306.2180.00	299.649.047	287.824.334	287.824.334	287.824.334	0	18.393.666
2. Ohiko ond. eta zerb. gast.	227.961.629	213.888.727	187.485.547	187.445.861	180.732.469	6.713.392	40.515.768
4. Transferentzia arruntak	241.152.000	237.432.000	235.212.360	234.539.155	234.539.155	0	6.612.845
6. Inbertsio errealak	914.958.000	788.788.775	788.723.396	39.316.769	32.572.487	6.744.282	126.234.604
8. Finantza-aktiboak	5.000.000	4.959.440	4.959.440	4.959.440	4.959.440	0	40.560
9. Finantza-pasiboak	551.000	61.241	61.241	61.241	61.241	0	489.759
Gastuak, guztira	1.695.840.629	1.544.779.230	1.504.266.318	754.146.800	740.689.126	13.457.674	192.287.202

Nafarroako Parlamentuko 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa
dirusarreraren kapitulu ekonomikoka

Kapituluak	Bateratua	Egindako dirusarrerak	Benetako kopurua	Sartua + / -
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	1.250.000	4.057.969	4.057.969	2.807.969
4. Transferentzia arruntak	746.001.000	746.001.000	746.001.000	0
5. Ondare dirusarrerak	3.500.000	13.066.336	13.066.336	9.566.336
7. Kapital transferentziak	936.250.000	846.250.000	846.250.000	-90.000.000
8. Finantza-aktiboak	8.739.629	12.483.839	12.483.839	3.744.210
9. Finantza-pasiboak	100.000	116.952	116.952	16.952
Dirusarrerak, guztira	1.695.840.629	1.621.976.096	1.621.976.096	-73.864.533

2. TAULA. 1999KO EKITALDIKO ONDARE ETA EKONOMI EMAITZA (pezetatan)

Gastuak	Urtea		Dirusarrerak	Urtea	
	1999	1998		1999	1998
Langileen eta parlamentarien gastuak	364.915.757	364.226.170	Argitalpenen salmenta	805.420	789.088
Tributuak	159.880	154.676	Korrituak	13.066.336	9.945.736
Kanpoko zerbitzuak	110.194.558	110.202.125	Aurrekontu itxietako etekinak aldatzea	2.046.665	56.074
Transferentzia arruntak	234.539.155	216.350.083	Transferentzia arruntak	746.001.000	725.907.000
Ekitaldiko emaitza arruntak	709.809.350	690.933.054	Kapital transferentziak	846.250.000	250.000.000
Aldeko emaitza partziala	906.952.249	297.215.345	Bestelako dirusarrerak	8.592.178	1.450.501

1999ko Ekitaldiko ondare eta ekonomi emaitzaren kontua (pezetatan)

Kontzeptua	Urtea	
	1999	1998
1290 Ondare eta ekonomi emaitza	906.952.249	297.215.345
1000 Ondarea	(37.076.288)	(129.334.352)
Inbertsioak (39.316.769 Pta.)		
Aktibo eta pasibo finantz. aldaketa garbiak 1999: 2.240.481		
1290 Ekitaldiko emaitza	869.875.961	167.880.993

3. TAULA. 1999KO EKITALDIKO EMAITZA BANATZEA (pezetatan)

Kontzeptua	Urtea	
	1999	1998
NONDIK		
1290 Ekitaldiko emaitza	869.875.961	167.880.993
NORA		
4760 Foru Ogasun Publiko hartzekoduna, kredituen itzulketa dela-eta	120.469.334	162.541.364
1291 Funts atxikiak gehitzeke	749.406.627	–
5500 Hurrengo ekitaldiko aurrekontuan sartzeko gerakina	–	5.339.629

4. TAULA: EGOERA BALANTZEA 1999-12-31N (EKITALDIKO EMAITZA APLIKATU ONDOREN)

AKTIBOA	Ekitaldia		PASIBOA	Ekitaldia	
	1997	1998		1997	1998
a) Ibilgetua			a) Fondo berekiak		
I. Ibilgetu materiala			I. Ondarea		
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	1.640.195.234	1.624.098.181	Ondarea	458.067.904	424.653.323
Makinak, instalaz. eta tresneria	51.850.393	47.757.306	Atxikitako ondarea	1.549.466.060	1.549.466.060
Garraio-elementuak	9.820.681	9.820.681			
Altzariak	96.115.759	90.172.950	II. Aurreko ekitaldietako emaitzak		
Informazioa erabiltzeko ekipoak	33.688.333	31.478.137	Funts atxikiak gehitzeke	749.406.627	-
Bestelako ibilgetu materiala	75.676.304	65.759.683	Aplikatzeko dauden kontusailak	242.497	242.497
II. Ibilgetu ez materiala			b) Epe laburreko hartzekodunak		
Ikerketak, azterlanak eta proiektuak	1.689.291	1.689.291	I. Onetsitako beteb. engatiko hartzek.		
Aplikazio informatikoak	17.541.416	17.541.416	Ek. arrunt. onets. beteb. hartzekodunak	-	-
Aplikatzeko dagoen ibilgetua	75.803.221	78.407.925	Itxitako ek. onets. beteb. hartzekodunak	90.519.495	83.408.467
			Aplikatu gabeko kontusailak	-	5.468.129
III. Finantza-ibilgetua			II. Entitate publikoekiko zorrak		
Epe luzeko maileguak	3.126.646	5.265.944	Foru Og. Publikoa, zerga kontzeptuak	-	195.000
b) Aktibo ibilkorra/Finantza-kontuak			Foru Og. Publikoa, kred. itzultzea	120.469.334	162.541.364
I. Aldi baterako finantza-inbertsioak			Gizarte Segurantza hartzekoduna	3.727.172	3.200.670
Epe laburreko maileguak	1.964.007	2.009.479			
II. Aurrekontuz kanpoko beste zordunak			III. Bestelako hartzekodunak		
Osasun laguntzagatiko aur. eta mail.	757.956	616.485	Epe laburrean jasotako fidantzak	337.316	281.605
III. Diruzaintza					
Kutxa	404.967	82.950			
Finantza-erakundeak	963.383.435	254.742.628			
Finantza-erakundeak	218.762	13.059			
(a+b) AKTIBOA, GUZTIRA	2.972.236.405	2.229.457.115	(a+b) PASIBOA, GUZTIRA	2.972.236.405	2.229.457.115
ABALAK ETA BERMEAK			ABALAK ETA BERMEAK		
Jasotako abalak	73.640.318	5.314.174	Abalistak	73.640.318	5.314.174

Hidrokarburoen, tabakogaien, elektrizitatearen eta aseguru primen gaineko zerga bereziei buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako hidrokarburoen, tabakogaien, elektrizitatearen eta aseguru primen gaineko zerga bereziei buruzko txostena argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Hidrokarburoen, tabakogaien, elektrizitatearen eta aseguru primen gaineko zerga bereziei buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina

GLOSARIOA

Zirkulazio albaranak: fabrikazioko zerga berezietako gaien zirkulazioari babeska ematen dioten agiriak, agiri osagarriaz, agiri osagarri erraztuaz, zerga-markaz eta adunako agiriez bestelakoak.

Zerga-biltegia: erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betez fabrikazioko zerga berezietako gaiak –barneko lur-eremuan zerga zorrarazi duten arren salbuespenen bat edo tasa gutxituren bat aplikatu zaienak– jaso, biltegitatu eta banatzeko establezimendu baimendua. Zerga-biltegi izateko baimena duen establezimenduan zerga-tasa orokorra aplikatutako zerga zorraraziko fabrikazioko zerga berezietako gaiak ere jaso, biltegitatu eta banatu ahalko dira.

Autokontsumoa: fabrikazioko zerga berezietako gaiak kontsumitu edo baliatzea, baldin eta gai horiek suspentsio-araubidean dauden establezimenduen barruan egiten bada.

Gordailuzain baimendua: zerga-gordailu baten edo fabrika baten titularra.

Zerga-gordailua: emandako baimenari esker eta erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betez, fabrikazioko zerga berezietako gaiak biltegitatu, jaso, eman eta, kasuan-kasuan transformatu diren establezimendua.

Jasotzeko gordailua: operadore erregistratu bat titularra den establezimendua. Bertan, emandako baimenari esker eta erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betez, beste estatu kide batetik datozen fabrikazioko zerga berezietako gaiak jaso ohi dira suspentsio araubidean.

Agiri osagarria: Europako Batzordearen irailaren 11ko 2719/1992 Erregelamendu bidez ezarritako agiria (LCEur 1992, 3003), fabrikazioko zerga berezietako gaiak suspentsio-araubidean zirkulatzeari babeska ematen diona. Administrazio-ko agiri osagarri bat izan daiteke –aipatu erregelamenduan eranskin gisa azaltzen den ereduari jarraikiz–, bai eta merkataritzako agiri osagarri bat ere –administrazio-ko agiriaren eskatzen diren argibide berak jaso behar ditu. Argibide horiek zenbaki horietako bakoitza behar dira, eta zenbaki horietako bakoitza bat etorriko da administrazio agirik laukitxo batekin.

Fabrika: emandako baimenari esker eta erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betez, fabrikazioko zerga berezietako gaiak erauzi, fabrikatu, transformatu, biltegitatu, jaso eta ematen diren establezimendua.

Fabrikazioa: fabrikazioko zerga berezietako gaiak erauztea, bai eta beste gai batzuetatik abiatuta gai horiek lortzeko beste edozein prozesu ere, transformazioa barne, artikuluko 23. idatz-zatian definitzen den moduan, Zerga bereziei buruzko 38/1992 Legeko 15. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoa deusetan ukatu gabe.

Operadore erregistratua: jasotzeko gordailu baten titularra.

Suspentsio araubidea: fabrikazioko zerga berezietako gaiak fabrikatu, transformatu, eduki eta zirkulatzeari aplikatzekoa zaion zerga araubidea. Horren ariora, zerga-egina egonagatik, ez da sortzapena gertatu, eta hortaz, ezin da zerga eskatu.

AURKIBIDEA

Glosarioa (6. or.).

I. Sarrera (7. or.).

II. Zergen azalpena (7. or.).

II.1. Hidrokarburoen gaineko zerga (7. or.).

II.2. Tabakogaien gaineko zerga (7. or.).

II.3. Elektrizitatearen gaineko zerga (8. or.).

II.4. Aseguru primen gaineko zerga (8. or.).

III. Helburua (8. or.).

IV. Norainokoa, metodologia eta mugak (8. or.).

V. Iritzia (9. or.).

- V.I. Aurrekontua betetzea (9. or.).
- V.II. Legezkotasuna (9. or.).
- V.III. Antolamendua eta barne kontrola (9. or.).
- V.IV. Eraginkortasuna eta ekonomia (9. or.).

VI. Azterketa (9. or.).

- VI.1. Tabakogaien gaineko zerga berezia (10. or.).
- VI.2. Aseguru primen gaineko zerga (10. or.).
- VI.3. Elektrizitatearen gaineko zerga (11. or.).
- VI.4. Hidrokarburoen gaineko zerga (11. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoarekin bat, Nafarroak jatorrizko eskubide historikoei eutsi die, 1839ko urriaren 25eko Legearen eta 1941eko abuztuaren 16ko Lege Itunduaren ariora, besteak beste.

Tributu eta finantza jarduera hitzarmen ekonomikoaren tradiziozko sistemaren bidez arautzen da.

1990ean sinatu zen azkena.

1997ko urrian egindako gaurkotzean –1998ko ekainean argitaratu zen– Nafarroak ondoko zergen kudeaketa bereganatu zuen:

- Hidrokarburoen gaineko zerga berezia
- Tabakogaien gaineko zerga berezia
- Elektrizitatearen gaineko zerga berezia
- Aseguru primen gaineko zerga berezia.

Ondoko legeek arautzen dituzte batez ere zerga horiek:

- Zerga berezietan buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea, abenduaren 19ko 40/1995 Legearen bidez aldatu baitzen.

- Zerga, Administrazio eta Gizarte arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen. Haren bitartez, aseguru primen gaineko zerga sortu zen.

- Zerga, Administrazio eta Gizarte arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen. Haren bitartez, elektrizitatearen gaineko zerga sortu zen.

Horrenbestez, Nafarroaren esku utzi ziren hidrokarburoen gaineko eta tabakogaien gaineko zerga bereziak –lehendik ere bazeudenak– nahiz aseguru primen gaineko eta elektrizitatearen gai-

neko zerga sortu berriak, indarrean 1997ko urtariletik eta 1998ko urtariletik hurrenez hurren.

Zerga horiek Zerga Berezi eta Tasen Atalak kudeatzen ditu –Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoko Tributu Zerbitzuko atala da–.

Atalak bi bulego ditu, bai eta ogasun teknikari bat, ogasun kudeatzaile bat, bi administrari eta kontrataturik dauden ogasun kudeatzaile bat eta bi administrari ere.

Ondoko taulan zehazten dira zerga horien bidez 1998an eta 1999an izan diren dirusarrerak:

	(milioitan)	
Zerga mota	1998	1999
Aseguru primen gainekoa	2.523	1.673
Tabakogaien gainekoa	10.154	10.490
Hidrokarburoen gainekoa	26.130	28.477
Elektrizitatearen gainekoa	1.486	2.033
Guztira	40.293	42.673

II. ZERGEN AZALPENEA

Atal honetan zerga horien ezaugarri nagusien azalpen laburra egin dugu. Sarreraren aurretik eman dugun glosarioa baliagarria da hainbat kontzepturi begira.

II.1. HIDROKARBUROEN GAINEKO ZERGA

a) Zergagaia. Hidrokarburoak fabrikatu eta inportatzeagatik ordaindu behar da zerga hau.

b) Sortzapena. Produktua fabrika zein zerga-gordailutik ateratzean gertatzen da funtsean, non eta ez den suspentsio-araubidean egiten.

c) Subjektu pasiboa. Subjektu pasiboa, oro har, gordailuzain baimendua da.

d) Zerga-oinarria. Produktuen bolumenak –litroak milakotan emanda– osatzen du.

e) Tipoa. Pezetatan ematen da, unitate bakoi-tzeko (mila litro). Tipo murriztuak ere badira (nekazaritzarako gasolioa).

f) Bestelakoak. Subjektu pasiboak aldizkako likidazio-aitorpena (hilabete naturala) egin behar du.

Salbuetsita dauden eragiketak daude, hala nola aire nabigazioko erregaia.

II.2. TABAKOGAIEN GAINEKO ZERGA

a) Zergagaia. Hidrokarburoetan bezala.

b) Sortzapena. Hidrokarburoetan bezala.

c) Subjektu pasiboa. Hidrokarburoetan bezala.

d) Zerga-oinarria. Tipo proportzionalen kasuan, publikoarentzako gehieneko salmenaprezioaren arabera kalkulatu da tabakogaien balioa.

Berariazko tipoen kasuan, berriz, unitate kopuruaren arabera.

e) Tipoa. Badaude tipo proportzionalak (balioaren gaineko ehunekoak) eta berariazkoak (pezetak unitate bakoitzeko).

f) Bestelakoak. Subjektu pasiboak aldizkako likidazio-aitorpena egin behar du.

Txosten hau egin dugunean, oraindano ez da zerga-gordailurik eratu Nafarroan.

II.3. ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA

a) Zergagaia. Energia elektrikoa fabrikatu eta inportatzea.

b) Sortzapena. Fakturazioaldi bakoitzean jasotako energia elektrikoari dagokion prezioaren parte eskatzekoa denean, baldin eta fabrika zein zerga-gordailutzat jotzen diren instalazioetatik ateratako energia elektrikoa kostubidezko titulu gisako faktura baten bidez edo energia elektrikoa banatzeko kontratu baten bidez atera bada.

c) Subjektu pasiboa. Gordailuzain baimendua da oro har. Subjektu pasibotzat joko dira, zergadunaren ordezkotza diren aldetik, energia elektrikoaren banaketak kostubidezko titulu bidez egiten dituztenak.

d) Zerga-oinarria. Sortzapena gertatuz gero Balio Erantsiaren gaineko Zergako zerga-oinarriaren zenbateko osoa izanzen litzatekeena bider 1,05113 koefizientea egitetik ateratzen dena da zerga-oinarria; zenbateko horri kendu egin zaizkio elektrizitatearen gaineko zergako kuotak –Balio erantsiaren gaineko Zerga aplikatzekoa den lurraldearen barruan lotu gabeko pertsonen artean energia elektrikoa kostubidez banatzekoak–, BEZa arautzen duen abenduaren 28ko 37/1992 Legeko 78 eta 79. artikuluetan xedatuari jarraikiz.

e) Tipoa. Ehuneko 4,864.

f) Bestelakoak. Sortutako kuoten aldizkako likidazio-aitorpena egin behar du subjektu pasiboak, hiruhilabetero edo hilero fakturazioaren arabera. Badira salbuetsitako eragiketak ere.

II.4. ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA

a) Zergagaia. Gaurkotze teknikan oinarritutako aseguru eta kapitalizazio eragiketak (bizitza, ibilgailuak, suteak etab.) –Espainian diharduten aseguru-entitateek hitzarturiko aseguru pribatuen ordenamenduari eta gainbegiratzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen 3. artikuluan aipatzen baitira–. Aipatu egin behar da salbuespen mota ugari dagoela.

b) Sortzapena. Kargatutako eragiketen primak ordaintzen diren unean.

c) Subjektu pasiboa. Aseguru-entitateak.

d) Zerga-oinarria. Ordaindutako kuota edo primaren zenbateko osoa, salbu eta Aseguruaren Kontentsazio Kontsortzioaren errekaruak eta primari zuzenean aplikatutako gainontzeko tributuak.

e) Tipoa. Primaren ehuneko sei.

f) Bestelakoak. Zerga honen likidazio-aitorpena egin behar du subjektu pasiboak hileroko.

III. HELBURUA

Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearearekin bat, ganbera honek bere jardura-planean sartu du hitzarmen ekonomikoaren azken gaurkotzearekin batera Nafarroari lagatutako zergen kudeaketaren fiskalizazioa, hots, tabakogaien, hidrokarburoen, elektrizitatearen eta aseguru primen gaineko zergen kudeaketaren fiskalizazioa.

Lan honek ondoko helburuak ditu:

- Programaren aurrekontua betetzerakoan, egotz dakizkikeen gastu eta dirusarrerara guztiak jaso diren egiaztatzea.

- Tributu horien kudeaketan aplikatu beharreko legedia bete ote den egiaztatzea

- Barne-kontrolerako ezarritako sistemak aztertu eta ebaluatzea; eta, behar izanez gero, horiek hobetzeko egoki irizten diren gomendioak ematea.

- Zerga horiek kudeatzean lortutako eraginkortasun eta ekonomia maila aztertzea.

IV. NORAINOKOA, METODOLOGIA ETA MUGAK

Lan hau egiteko, 1999ko jardura aztertu da, eta zenbait kasutan, Nafarroak zerga horiek kudeatzeari ekin zioneko 1998ko puskari dagokiona ere bai.

Dauden kontabilitate-erregistroak eta kudeaketa-prozedurak zein barne kontrola eta antolamendua aztertu dira.

Nafarroako Kontuen Ganbararen auditoretzageidei jarraituz egin da lana, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta araei jarraituz alegia.

Zerga horiek Nafarroari 1998an lagatu izanak eta horietakoren bat berriki sortu izanak zail egiten du horien eragingarritasuna balioesteko moduko konparazio historikorik egitea.

Tributu horien kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak jasotzen dira txostenean.

Azterlana 2000ko otsailean eta martxoan zehar egin du auditore batek eta bi auditore-teknikari osatutako taldeak, eta horretarako Kontuen Ganbarako zerbitzu juridikoen, informatikarien zein administrarien laguntza izan dute.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoko Tributu Zerbitzuko Zerga Berezi eta Tasen Atalari, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

V. IRITZIA

Txosteneko III. atalean adierazitako helburuak direla-eta, hona gure iritzia:

VI.I. AURREKONTUAREN BETETZEA

1999ko dirusarreraren likidazioak behar bezala islatzen du egindako jardura.

V.II. LEGEZKOTASUNA

Egindako azterketak erakusten du legezkotasun printzipioaren arabera egiten direla, oro har, jarduerak.

V.III. ANTOLAMENDUA ETA BARNE KONTROLA

Zerga Berezi eta Tasen Atalak 1998ko ekainetik aitzina hartu zituen bere gain hitzarmen ekonomikoa gaurkotzean Nafarroari lagatuko zergak –ordura arte jokoaren gaineko, alkoholaren gaineko eta beste gai batzuen gaineko zergak kudeatzen zituen–. Horien artean daude aseguru primen gaineko eta elektrizitatearen gaineko zerga sortu berriak. Hori dela eta, epe honetan kudeaketako administrazio prozedurak garatzea izan da eginkizun nagusia. Prozedura horien ezarpen fasea aurreratuta dagoela esan dezakegu.

Halaber, aipatu egin behar da oraindano ez dela tabakorako zerga-gordailurik eratu, eta hortaz, Foru Komunitateak ez du tributu hori kudeatu.

V.IV. ERAGINKORTASUNA ETA EKONOMIA

Zerga horiek kudeatzea orain dela gutxi egokitu zaio Nafarroako Zerga Ogasunari, eta hortaz, ezin dugu tributu horien kudeaketaren eraginkortasunari eta ekonomiari buruzko ondoriorik atera.

Hona, bada, gure gomendioak:

- *Tributu horiek kudeatzen hasteko fasea azkartzea. Hartara, gure ustez, zergadunen zentsuak eta kontu-hartze lanen garapena hainbat arinen egin behar dira.*

- *Zerga horiek kudeatzeko sistematika osatzea. Besteak beste ondokoak jaso behar ditu sistematika horrek: zentsoen mantentzea, aitortpenen kontrola (erreklamazioena ere, halakorik badago) eta kontu-hartze lanen garapena.*

- *Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuaren eta Zerga Berezi eta Tasen Atalaren artean koordinatzea zer irizpide erabili zerga horiek ikuskapen planetan sartzerakoan.*

VI. AZTERKETA

Atal honetan, zerga bakoitza zertan datzan hobeki ulertzeko gure ustez aipagarrienak diren iruzkinak, edo horien kudeaketan eragina dutenak, eginen ditugu.

Zergak banan-banan aztertu aurretik, gogoeta orokor batzuk eginen ditugu, zerga horietako bati baino gehiagori buruzkoak baitira.

Zeharkako zergak direnez, estatukoa da legedia. Halatan, Foru Komunitateak estatuan unean unean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berberak aplikatuko ditu. Halere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dirusarrera eta aitortpen ereduak onetsi ahalko ditu –gutxienez ere, lurralde komuneko ereduak dato berberak jaso beharko dituzte– eta likidazioaldi bakoitzeko dirusarrerak egiteko epeak ezarri ahalko ditu –ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izanen.

PFEZ eta BEZarekin konpratur gero, halko zergek dirubilketa handia dakarte subjektu pasibok oso gutxi badira ere.

Dena den, dirubilketarik gabeko kontrol eta kontu-hartze lan handia dakarte: entregak suspentsio-araubidean, salbuetsitako eragiketarako, operadoreek egin beharreko administrazio kontrolak gainbegiratzea, izakinak zenbatzea...

Zerga horietan, hidrokarburoen gainekoan batez ere, arau-hauste eta zehapen sistema berezia da, bestelako erabileretarako gasolio hobari-dunari eragiten diona esta baterako. Zehapen espediente horiek, oro har, poliziaren salaketa dela medio abiatzen dira.

Estatuko legeriari jarraikiz, Zerga Berezi eta Aduanen Departamentuko ikuskaritza zerbitzuek –Zerga Administrazioako Estatuko Agentziaren menpe daude– egiten dituzte zerga berezietako kontu-hartzailletza eta ikuskaritza lanak. Nafarroan, berriz, tributu horien gaineko ikuskaritza, gainontzeko tributuena bezala, Ikuskaritza Zerbitzuari eta horretarako propio izendatutako pertsonen dagokie. 1997ko foru agindu baten bitartez, Zerga Berezi eta Tasen Ataleko teknikari bat hasi zen kontu-hartzailletza eta ikuskaritza lanak egiten.

Aipatu beharra dago ezen, eskumen horiek Nafarroaren esku orain dela gutxi utzi direnez, ez dela ikuskaritza lanik egin zerga horiek direla-eta.

VI.1. TABAKOGAIEN GAINEKO ZERGA BEREZIA

Nafarroan ez dago tabako fabrikarik, eta ez da instalaziorik jarri zerga-gordailu gisa.

Une honetan, iparraldeko banaketa Errioxan dagoen zerga-gordailu batetik egiten da.

Aurreikusita dago Nafarroan zerga-gordailu bat jartzea, baina zerga-gordailuak baimentzeko beharrezkoa da Koordinazio Batzordeak erabakia hartzea (Hitzarmena gaurkotzeko erabakiaren 30. artikulua).

Egoera, hortaz, harik eta zerga-gordailua eratzeko administrazio prozesua burutu arte, behin-behinekoa da.

Hori dela-eta, zerga horien kudeaketa eskuratu baino lehenagoko modu berean egiten da gaur egun dirubilketa, hots, Hitzarmena doitu.

1998an 10.153 milioi bildu dira kontzeptu hori dela-eta, eta 1999an, berriz, 10.490. 1999ko saldoan honakoak biltzen dira: 1999an hiruhilero egitako lau doiketen zenbatekoak eta 1998ko azken likidazioa.

Gure gomendioa da Nafarroan zerga-gordailua ezartzeko beharrezkoak diren tramiteak ahal den neurrian azkartzea.

VI.2. ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA

Zerga hori 1997an jarri zen indarrean Estatuan, Espainiako zerga sistema Europako Batasun-

nekora egokitzearen. Aseguru eta kapitalizazio eragiketak behin bakarrik kargatzen dira.

Eskumena eskuratzean, subjektu pasiboan zentsoa egin zen, Estatuan tributuak ordaintzen zituztenen datuetatik abiatuta.

Zerga kudeatzeko, “ordainketa agiria” eta “urteko aitortpenaren laburpena” bidaltzen zaie zentsoko subjektu pasiboari.

Subjektu pasiboak hilero egin behar du ordainketa; urtarrilean, aldiz, aurreko urtearen laburpena egin behar du.

Ondokoa da 1998 eta 1999ko bilketa:

(milioitan)			
Kontzeptua	1998	Kontzeptua	1999
1997ko ekarpena		1998ko abendutik 1999ko	
hitzarmenaren arabera	1.075	azarora bitarteko kuotak	1.655
1998ko urtarriletik azarora			
bitarteko dirusarrerak	1.448	Aurreko kuotak	18
Guztira	2.523	Guztira	1.673

Ikus daitekeen legez, 1999tik aitzina, aurreko urteko abenduko kuotak eta urteko lehen hamaika hilabeteetakoak zenbatzen dira.

Hona egindako azterketaren ondorioak:

- Gorabeherak somatzen dira zentsoan, eguneratze fasean dago eta. Horri gehitu egin behar zaio, batetik, sektorean aldiro gertatzen direla bat-egiteak, eta bestetik, aseguru-etxeen antolamenduaren arabera batzuetan ordezkarietzan sinatzen direla polizak eta beste batzuetan bulego nagusietan, eta horrek noski bikoiztasuna eta nahasketa dakar batzuetan.

- Aseguru primen gaineko zerga “konplexua” da; izan ere, aseguru-etxeak kontrolatu egin behar du “Nafarroako lurraldean egindako kapitalizazio zein aseguru eragiketen konpromisoa zein arriskuaren lokalizazioa”, hori baita Nafarroa tributu administrazio eskuduna ote den zehazteko irizpidea.

- Subjektu pasibo gehienek Nafarroatik kanpo dute euren sozietate-egoitza, eta hori dela-eta, ikuskaritza lana zailagoa da eta beharrezkoa gerta daiteke beste tributu administrazio batzuekin koordinatzea.

- 1999an, 95 zergadunetatik, gehien ordaintzen duten hamarrek % 60 jartzen dute, hau da, 1.010 milioi; 34 zergadunek, berriz, 11 milioi baino ez dute jartzen, hau da, ehuneko bat baino gutxiago.

Hona, horrenbestez, gure gomendioak:

- *Sistematika bat ezartzea zergadunen zentsoa eguneraturik izateko.*

- *Erreklamazio plan bat egitea, zentsoan ageritu arren aitortzen ez duten sozietateentza -ko, edo alderantziz. Jarduketa bera egin beharko da baldin eta aldizkako kuotak ordaindu arren urteko aitortzenaren laburpena egiten ez bada.*

- *Zerga honen ezaugarriak zein diren aintzat hartuta, komeni da lankidetzan aritzea gainontze -ko tributu administrazioekin; hori guztia, halere, ez da eragozpen izanen tributuaren ikuskaritza arloan Nafarroako Zerga Ogasunak legediak esleitzen dizkion eskumenak izateko.*

VI.3. ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA

Zerga hori 1998an ezarri zen Estatuan. Horren helburu nagusia da behar adinako dirusarrera lortzea, elektrizitatearen fakturako "ikatz-meatzaritza" esleitutako kostu berariazkoa kontzeptuko errekarua kendu izana konpentsatzeko. Halaber, energia-produktuen gaineko zergak berregituratzeko Europako Komunitateak emandako zuzentarau proposamenera egokitzea leharke zerga hori ezartzeak.

Zerga berria denez, orain arte eginikoa abian jartzeko lantzat jo daiteke. Halatan, zeregin nagusia zentsoa egitea izan da, eta horretarako, baimenen zerrendan oinarritu dira –Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak utzi die zerrenda.

1998an 1.485 milioi bildu dira zerga horren bidez, eta 1999an, berriz, 2.033 milioi.

Aipatu egin behar da zenbateko horiek ez direla euren arteko konparaziorik egiteko modukoak; izan ere, 1998ko lehen zatia Hitzarmenaren doiketan likidatu zen behin-behinekoz, eta 1999an, aldiz, 13 hilabete egotzi dira. Energia banatzen duten enpresek, gainera, aldatu egin zituzten kontsumoaren kontrola egiteko datak.

Dirubilketaren % 99 enpresa bakar bati dagokio. Bada, hortaz, zero kuotako aitortzen kopuru handia.

Horrenbestez, *gure gomendioa da ahalik eta azkarren bukatzea zerga ezartzeko fasea, zerga -ren kudeaketa ohikoa dei daitekeen fasea hastea -ren.*

VI.4. HIDROKARBURUEN GAINEKO ZERGA

Zerga honen subjektu pasiboek aitortzen-likidazioa egin eta hileroko ordaindu behar dituzte dagozkien zenbatekoak.

Hidrokarburoen zerga-gordailu eta fabrikek aldiari-aldiari aurkeztu behar dute eragiketen aitortpena.

Zerga-gordailuko irteerak, suspentsio-araubidera lotu gabekoak, "agiri osagarria" eramanen du baldin eta salbuespen edo tipo murriztua aplikatzen bazaio, eta "zirkulazio albarana" baldin eta tipo orokorra aplikatzen bazaio.

Ondokoak dira, Nafarroan duten garrantziaren arabera, salbuespen nagusiak: aire nabigaziorako erregaia, non eta ez den aisialdiko abiazio pribatua; zentral elektrikoetan elektrizitatea ekoiztea, edo ziklo konbinatuko zentraletako elektrizitate eta beroaren kogenerazioa eta tren-garraioko erregaia.

Zergaren kudeaketan "ARIES" aplikazioa erabiltzen da. Aplikazio hori Estatuako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako tributu administrazioek partekatutako programa bat da.

1998an 26.130 milioi bildu ziren zerga horren bidez, eta 1999an, berriz, 28.477 milioi. 1999an, hamabi hilabete –bat 1998koa eta hamaika ekitaldikoak– eta 1998ko doiketaren azken likidazioa kontabilizatu dira.

Praktikan, bildutakoaren ehuneko ehun enpresa bakar bati dagokio.

Zerga horiei lotutako produktuak esportatzen dituzten enpresek zerga itzultzeko eskubidea dute. Nafarroan, 17 milioi pezeta itzuli dira 1999an horrela.

Gure gomendioa da sistematika bat ezartzea ikuskaritza eta kontu-hartzailetza lanak egin ahal izateko.

Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta eman da txosten hau, beratu izan baita arduraduna, indarreko arauak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--